


/ Nabarmentzekoak

- > 2 x 1 Txurruka moilako norian jaiegun ez diren astelehenetan (3. or.)
- > Garbigertuak eta bolumen handiko berrerabilgarriak biltzeko zerbitzua sustatzeko kanpaina (4. or.)
- > Punta Begoña, sari ospetsu bateko finalista (4. or.)



***Zuhaizti altuak eta lerrokatutakoak inauteko denboraldia hasi da, eta datorren apirilera arte egingo da (4. or.)**

Antzerkia. Hilak 12, ostirala, 20:00etan, Muxikebarrin, "R&J" (euskaraz) La Dramática Erranterekin. 16 urtetik gorakoentzat. 8 euro.

Dantza. Hilak 14, igandea, 20:00etan, Muxikebarrin, "Cowards", Ángel Durán Performing Arts-ekin. 14 urtetik gorakoentzat. 6 euro.

A-
GENDA

Getxok garbitasun- eta lorezaintza-eredua berritu du, baldintza-agiri jasangarriago, eraginkorrago eta klima-ekintzara bideratuago batekin

Udalak hiriko berdeguneen garbiketarako, lorategien mantentze-lanetarako eta ildasken ertzak kontserbatzeko baldintza-agiri berria du. Horrek jauzi kualitatiboa markatzen du espazio publikoaren kudeaketan eta udalaren klima-ekintzan. Eredu berriak zerbitzuaren egitura eguneratzen du, jasangarritasuna indartzen du eta lan-baldintzak hobetzen ditu, udalerraren egungo eskarietara egokituz.



Kontratua, lehen aldiz, hiru lote desberdinetan banatzen da, kudeaketa eraginkorrago eta kontrol tekniko handiagoa ahalbidetuz:

- **Hiriko berdeguneak garbitzea**, gehien erabiltzen diren espazio publikoak egoera ezin hobean mantentzeko.
- **Lorategien eta zuhaitzen mantentze-lan teknikoak**, klima-aldaketak eragindako erronkei egokituak.
- **Ildasken ertzak eta arekak kontserbatzea**, funtsezkoa baita bide-segurtasunerako eta landa-eremuak zaintzeko.

Banaketa horrek erantzukizunak

sakabanatzea saihesten du, eta zerbitzuaren kalitatea ziurtatzen du, esparru bakoitzean espezializatutako lan taldeekin.

Baldintza-orri berriak 18 hilabete iraungo du, luzapenik gabe. Lan-baldintzak aldizka berrikusi ahal izateko eta soldatak indarrean dauden hitzarmenetara egokitzeko hartu da erabaki hori, subrogatutako langileen egonkortasuna eta justizia soziala bermatzeko.

Gainera, kontratua malguagoa da eta ez ditu etorkizuneko erabakiak

konprometitzen, legealdiak aurrera egin ahala hobekuntza teknikoak eta ingurumenekoak sartzea ahalbidetuz.

3,97 milioi euroko aurrekontuarekin, Getxoren tamainari eta konplexutasunari egokitzen zaio baldintza-agiria. Getxok hiri-dentsitate handia du, eta, aldi berean, landa-eremuak eta 300 okupazio baino gehiago urtean bide publikoan.

Dokumentu berriak ingurune naturalerako arreta hobetzen du, errepideen mantentze-lanak indartzen

ditu eta bitartekoak eta makinak eguneratzen ditu, batez ere lorezaintzako, belar-sastraken garbiketako eta garbiketako lanetarako.

Plegua Legegintzaldiko Planaren 2. ardatzarekin lerrokatuta dago agiria, hau da, Ekintza Klimatikoa, ekonomia zirkularreko praktikak bultzatuz — murriztea, birziklatzea eta berrerabiltzea — eta ingurumen-kudeaketa eta gardentasuna indartuz, adierazle eta kontrol-sistema hobeen bidez.

Iraunkortasunerako, herritarren komunikaziorako eta jarduketan trazarabilaterako neurri espezifikoak ditu, Getxo bere ingurunearekin eta hiri-kalitatearekin konprometituta-ko udalerrri gisa sendotuz.

Iñigo Urkitza Ingurumeneko zinegotziak adierazi duenez, *"plegu hau herritarrekiko eta ingurumenarekiko dugun konpromisoa betetzeko tresna bat da. Garbitasuna, segurtasuna eta iraunkortasuna bermatzen ditu, etorkizuneko erronketarako prestatutako talde pertsonal eta teknikoekin"*.

Txirrindularien eta oinezkoen arteko elkarbizitza egokia sustatzeko kanpaina

Udalak kontzientziazio-kanpaina jarri du abian udalerriko kaleetan txirrindularien eta oinezkoen arteko elkarbizitza sustatzeko. Ekimen honek 13.000 euroko aurrekontua du, eta Getxoko herritarrek 2025eko Aurre-kontu Parte hartzaileetan egindako eskaere-tako bat da.

Keltse Eiguren Herritarren Segurtasuneko zinegotziak adierazi duenez, *"gero eta per-tsona gehiagok eragiten diete pedalei kale, parke eta pasealekuetan, espazioa parteka-tuz oinezkoekin eta ibilgailuekin. Bizikidetzat hori segurua eta errespetuzkoa izan dadin, oinarrizko arauak gogorarazi eta praktikan jartzera animatu behar dugu: abiadura errespetatzea, zebra-bideak oinez gurutzatzea,*

espaloietan ez zirkulatzea eta inguru-an arreta mantentzea pedalei eragiten zaien bitartean entzungailuak saihestuz, etab. Kanpaina hau kultur aldaketa horretan laguntzeko sortu da: Getxok mugikortasun jasangarrirantz aurrera egiten jarrai

dezan laguntzea, inoren segurtasunari uko egin gabe. Pedalei arduraz eragitea ere bizikletan ibiltzen jakitearen parte da".

Bi pertsonaia alai, txakur bat eta kate-me bat, dira kanpainaren protagonistak,

eta herritarrei galdetuko zaie ea benetan daki-ten zer esan nahi duen hirian bizikletak era-biltzeak: ezarritako abiadura muga errespetatzen duten, oinezkoen eremuak oinez gurutzatzen dituzten, pedalei eragiten dieten bitartean aurikularrak erabiltzen dituzten...

Horretarako, material grafikoa jarri da autobus-geltoki batzuetako markesinetan, eta, sare sozialetan, dibulgazio bideoak zabaltzen ari dira eta online joku bat proposatu da (<https://getxobizi.eus/>), bizikletaren jardunbide egokiei buruz. Halaber, egungo araudia kontsultatzeko aukera ematen du, eta bizikleten edozein erabiltzailerentzat kontsultatza azkarreko gida eskaintzen du.





ABENDUAK 4 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00h, Muxikebarrin, Jacques Audiarden "Emilia Pérez" (gaztelaniaz). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

ABENDUAK 5 OSTIRALA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Ilogailua" (euskaraz), Fábrica de Brujas Sormen Kolektiboarekin. 8 euro.

Zine-Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Mike Leighen "Mi única familia" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

ABENDUAK 6 LARUNBATA

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Bizardunak taldearen agur kontzertua. 18 euro.

Kontzertua. 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokiaren, Bergarako Parrokiako Abesbatza eta Aitor Olea (organoa). Antolatzailea: Merklin Organoaren Lagunen Elkartea.

ABENDUAK 7 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Deep sea, viaje a las profundidades". 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Guardiana de dragones". 2,50 euro.

Haur musika-ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin, "Txiki Rock, euskal rockari erreparaso", Vitamin Produccionesekin. 6 euro.

ABENDUAK 8 ASTELEHENA

Azoka solidarioa. Abenduaren 16ra arte, San Martin elizan, Kanseniako misioaren alde, Kongoko Errepublikako Demokratikoan. Asteleheneetik larunbatera: 10:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Igandean: 11:00etatik 14:30era. San Martin de Tours Misiotako taldeak antolatuta.

ABENDUAK 10 ASTEAZKENA

Liburu-aurkezpena. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Getxo (1876-1937): hiri bat eraikitze bidean" liburuaren aurkezpena (ele bieran).

ABENDUAK 11 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00h, Muxikebarrin, Jacques Audiarden "Emilia Pérez" (gaztelaniaz). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Merkatu txiki solidarioa. Gabonetako apaingarriak, moda, osagarriak, haurtxoen-tzako arropa... Igandera arte, hilak 14, Basagoiti 73an, Aretxondo kultur elkartearen lokalak. www.asociacionculturalaretxondo.org

ABENDUAK 12 OSTIRALA

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera (gaztelaniaz).

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "R&J" (euskaraz), La Dramática Erranterekin. 16 urtetik aurrera. 8 euro.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Hong Sang-soore "En la corriente" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

ABENDUAK 13 LARUNBATA

Ipuin-kontaketa. Storytime. Algortako Kultur Etxean (Villamonte) "Saving Christmas" (ingelesez). 3-7 urte. Doan. Izena emateko: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Dantza Plaza. 19:30ean, Areetako Eskoletako plazan, erromeria herrikoia bertako Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeekin.

Kontzeru solidarioa. Bidesariren alde. 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Bilbao Gospel abesbatzaren emanaldia. 10 euro. Antolatzailea: Areetako Romo-ko Espetxe Pastoralzarako Taldea.

ABENDUAK 14 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Heide. Katamotzaren erreskatea". 2,50 euro.

Antzerkia. Emakumeak eszenan. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "En un canal de la Mancha", Luna Llana Teatrorrekin. Gonbidapenarekin (Romo Kultur Etxean eta Muxikebarrin).

Dantza. 20:00etan, Muxikebarrin, "Cowards", Ángel Durán Performing Arts taldearekin. 14 urtetik aurrera. 6 euro.



Terrorismoaren biktimei omenaldia

Amaia Aguirre alkatea asteazkenean, abenduak 3, izan zen terrorismoaren biktimei Udalak urtero egiten dien omenaldiaren buru, 2009ko martxoan Osoko Bilkuran lortutako akordioaren ondoren. Udaleko talde politiko guztietako ordezkariak parte hartu zuten, EH-Bilduk izan ezik. Txistulariek "Agur Jaunak" jotzen zuten bitartean, minutu bateko isilunea egin zen. Ondoren, eta ekitaldiari amaiera emateko, alkateak lore-sorta bat utzi zuen San Inazio plazan dagoen "Guztion etxea" eskulturaren oinean.

Ereagako "La Terraza" eraikina ustiatzeko kontratua lagatzeko baimena ezetsi da

Udalaren Osoko Bilkurak, bere azken saioan, ezetsi egin zuen Ereagako La Terraza eraikina ustiatzeko kontratua beste enpresa bati lagatzeko baimen-proposamena, EAJ/PNVren eta EH-Bilduren abstentzioarekin eta PPren eta PSE-EEren aurkako botoekin (Elkarrekin Podemos ez zen bilkuran egon). EAJ/PNVk zuzenketa bat aurkeztu zuen "kontratu lagatzeko akordioa ondo eginda egon dadin, argia izan dadin eta Udala babes dezan. Izan ere, ABEE lagatzaileak zorrak ditu ordaintzeke eta titular berriari nola eta noiz helaraziko zaizkion argitu behar da". Zuzenketa onetsi egin zen, baina kontratua beste enpresa bati lagatzeko proposamena ezetsi egin zen.

PSE-EEK adierazi zuenez, "600.000 euroko kobrantza-zorra duen lagapen baten ondorio ekonomiko eta juridikoak daude, baina argitu gabeko zalantzak ere, hala nola ABEEaren egoera juridikoa, behin eta berriz ez ordaintzea eta lagapen-hartzailearen kaudimena (ea zorrari aurre egin ahal izango dion)". Talde horrek galdetu zuen ea zerk bermatzen duen hobekien interes publikoa, kontratua suntsiarazteak edo lagatzeak.

EH-Bilduk, bestalde, zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak 2021az geroztik bere betebeharrak bete ez dituela salatu zuen, eta, era berean, galdetu zuen non dagoen enpresa horren kaudimena eta zergatik ez den jarraipenik egin. "Helburua argi dago: zorra desagerraraztea. Susmatzen dugu inork ez duela ordainduko 600.000 eu-

roko zorra, inork ez baitu kontratua zaindu".

PPk "alderdi ilunean mugitzea" leporatu zion gobernu-talderari. "Ez gerenteak ez emakidadunak ez dituzte kontratu horri aurre egiteko eskakizunak betetzen, kontratuaren helburu bakarra zorra saihestea baita. Enpresari erantzukizuna eta zorra berreskuratzeko eskatu behar zaio".

Azkenik, EAJ/PNVk adierazi zuenez, "espediente hau administrazioaren aginduz izapidetzen ari gara, eta eskaerak baldintza guztiak formalki betetzen dituen arren, gure taldeak oraindik ere zalantzak ditu aurkeztutako dokumentazio teknikoaren nahikotasunari buruz, bereziki kontuan izanda enpresak azken urteotan izan duen bilakaera. Horregatik, abstenitzea erabaki dugu".

Beste gai batzuk

Bestalde, oniritzia eman zitzaien Udaleko lanpostu batzuetarako hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-daren aldaketari. EAJ/PNVk, PSE-EEK eta PPk aldeko botoa eman zuten, eta EH-Bilduk kontrako botoa eman zuten; izan ere, bere ustez "euskararen aurkako eraso da. Profilek ez dute errealitate sozial bat islatu behar, gure hizkuntzaren babesean aurrera egiteko gutxieneko batzuk ezarri baizik". PPren ustez, aldiz, "bizidunak eta proportzionala da, eta langileak babesten ditu, Getxoko errealitatea islatzeaz gain". Bestalde, EAJ/PNVk adierazi zuenez, «argi eta garbi dago ez zaigula gustatzen, legeak zuzenean hala agintzen duelako egin behar

Urteroko Boluntariotza Topaketa

Sarekide, Getxoko boluntariotza erakundearen elkarteak, Udalaren laguntzarekin, antolatutako XXXII. Boluntariotza Topaketa abenduaren 9an, 19:30etik aurrera, izango da Romo Kultur Etxean. Jardunaldiak aintzat hartzen du erakundeek Getxon eta/edo udalerriko pertsonen alde egiten duten borondatezko parte-hartzea eta lana, haien arteko topaketa eta harremana bultzatuz. Topaketa VIII. Argazki Sozialaren Lehiaketaren sariak ere emango dizkiete irabazleei.

dugu. Legea bete behar dugu, eta, 2025eko uztailaren 9ko epaiaren ondorioz, aurkeztutako prozesu horiek 2026an amaituta egon behar dira. Ez daukagu astirik. Hori egin ezean, erantzukizunak eskatuko lizkigukete; eta, beraz, hala jokatzeko dugu zuzentzearen eta segurtasun juridikoaren printzipioa betetzeko".

Onetsitako mozioak

Mozioen kapituluaren, testigantza-izaerarekin, lau onetsi ziren. Lehenengo biak PPk aurkeztu zituen, bata asfaltatzea hobetzeko neurriak hartzeko, eta bestea hiriko bide publikoetako trafikoen, erabileren eta segurtasunaren ordenantza eguneratzeko. EH-Bilduk aurkeztutako beste mozio bati ere argi berdea eman zioten, Trafiko eta Mugikortasun Ordenantza-aren erreformari begira lantalde bat sortzeko, udal talde politikoaren eta mugikortasun iraunkorraren arloko elkarte eta eragileen partaidetzarekin, baita ordenantza berria 2026an izapidetzeko eta beharrezko baliabideak aurreikusitako ere, besteak beste.

Azkenik, EH-Bilduren beste proposamen bat onartu zen, Muxikebarriko edaritegiak kudeatzeko lizitazio-prozesua berehala abian jartzeko.

Jendearen galde-eskeen txandean, honako hauek parte hartu zuten: Getxoko taxilarien ordezkari bat, mugitzeko arazoak dituzten herritarrentzat irisgarria den ordezkari ibilgailu bat eskatzeko; eta Areetako bizilagunak, zuzentzearen kintza eta lorategiak garbitzeko eskatzeko, besteak beste.

Tratu txarren biktimek artatzeko Eusko Jauritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erakundeetako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. **Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.** Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Bizardunak taldeak agur esango die agertokiei inork espero ez zuen birarekin

Bizardunak euskal folk erradikaleko talde nafarrak agur esango die agertokiei, inork espero ez zuen bira batekin: *Hasta que nos canceléis Tour-Azken iraina bira*. Larunbat honetan, abenduaren 6an, azken kontzertua eskainiko du Muxikebarrin, bere "ez hain Bizkaia maitea"-n. 21:00etatik aurrera, eta 18 euroko sarrera prezioarekin, kontzertu-antzerki bat eskainiko dute, non, diotenez, "dena gerta daiteke, eta ez du inor axolagabe utziko. Agur esatea ere memoria ekintza bat delako. Eta erresistentziakoa".

2013ko uztailean desegin ondoren, hiru diskoko diskografia bat utzita (*Bizardunak, En zugzwang*



eta *Ur ederra kirats*) agertokieta-ira itzuli ziren 2025aren hasieran. Urte askotako kaosaren, izerdiaren eta arrastoa utzi zuten abestien ondoren, zirkulua ixteko

unea iritsi da. Inoiz egin ez den agurra da, zahartu baino minutu bat lehenago, ukabila goian eta mugikorra (behingoz) poltsikoan ahaztuta.

2 x 1 Txurruka moilako norian jaiegun ez diren astelehenetan

Eguberri hauetan, urtarrilaren 6ra arte Areetako Evaristo Txurruka moilan instalatutako noriak deskontuak aurreikusten ditu jaiegunak ez diren astelehenetan, eta, beraz, bidaiaria bat ordaindu eta bi egin ahal izango dira.

Bestalde, gune berean dagoen trentxoak 4 euroko prezioa du tiket bakoitzeko, eta 21 eurokoa 6 tiket aukeratzen badira; horiek ez dira baliozkoak izango noriarentzat. Helduek ere ordaindu behar dute tiketa.

Bi kasuetan, desgaitasun-maila egiaztatzen duen txartela NANA-rekin batera aurkezten duten pertsonak dohainik gozatu ahal izango dituzte atrakzio horiek.

Adierazpen Instituzionala Euskararen Egunean

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzen dela eta, Udaleko Bozeramaileen Batzordeak Adierazpen Instituzional bat onartu zuen aho batez, *Euskara ZUGAN, NIGAN, GUGAN* lelopean. Adierazpen horrek euskarak bide luzea egin duela aitortu zuen, eskerrik beroena eman zien euskaraz bizi izan direnei eta sustatzeko lan egin dutenei, eta nabarmendu zuen aisialditik lan munduraino, eta norbanakotik erakundeetarako hitz egiteko gune erosoak sortzeko unea dela, baita belaunaldi berrien artean euskararen transmisio indartzeko eta ezagutza zabalatzeko ere.

Txiki Rock, euskal rockari errepasoa

Vitamin Producciones konpainia Muxikebarrira iritsiko da *Txiki rock, euskal rockari errepasoa* izenburuko familia ikuskizunarekin. Igan-dean, hilak 7, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, dena posible izango den kontzertua eskainiko dute: euskal rocka inoiz ez bezala biziko da, umorez, alaitasunez eta erritmo biziz. "Gurasoei, osaba-izebei hainbeste gozarazi zieten musika hurbildu nahi diegu haurrei", diote.

Kortatu, Itoiz edo Hertzainak bezalako taldeen abesti indartsuak, dantza dibertigarriak eta sorpresa ugari izango



dira agertokian, hurrek Euskal Herriko rockaren historia ezagut dezaten, familian abestu eta gozatzeaz gain. Musika ikasteko modu bat, festa bat ospatuz, kantatuz eta dantzatuz. Sarrerak 6 euro balio du.




"Igogailua", gaixotasun batek bizitza aldatzen duenean

Fábrica de Brujas Sormen Kolektiboa konpainiak antzezlan bat taularatuko du ostiral honetan, abenduak 5, Muxikebarrin, *Igogailua* goiburuko antzezlan, euskaraz, gaixotasun baten diagnostikoa pertsona baten bizitzan mugarririk izan daitekeela aztertzeko. Aiora Sedano, Itziar Fragua aktoreak (AixeGetxo saria! 2025ean, Arte Eszenikoen kategorian) eta Leire Ormazabalek hiru protagonistak biziartzen dituzte, beldurra, frustrazioa, desira eta itxaropena elkarrekin igarotzen dituztenak. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 8 eurokoa da.



Gospel Bilbao taldearen kontzertu solidarioa Areetan Bidesari elkartearen alde

Datorren larunbatean, abenduaren 13a, Gospel Bilbao abesbatzak kontzertu solidarioa eskainiko du Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Areea-Romoko Kartzela Pastoraltzak antolatuta, 19:30ean hasiko da eta sarreraren prezioa 10 eurokoa da. Diru-bilketa osoa Bidesarientzat eta haren tutoretzapeko etxebizitzentzat izango da. Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta askatasunaz gabetuta dauden pertsonak bizi duten bazterkeria-egoerari erantzuteko sortu da, pertsona horiek beren onera ekartzeko eta gizarteratzeko.



"Herrimina: Areetatik Oleronera", Gerra Zibileko neskato baten bizipenetan oinarritutako nobela

Nahikari Ayo bertsolari eta idazle getxotarrak *Herrimina: Areetatik Oleronera* bere azken liburua aurkeztu du Romo Kultur Etxean. Euskaraz idatzitako eleberria da, bere amonak, Gerrako neskatoak, bizitako esperientzietan oinarritua. "Nobelaren argumentuak nire familiarekin du zerikusia. Nire amoma Oleronera erbesteratu zuten, Frantziako uharte batera. Gutunak, argazkiak eta garai hartako beste objektu eta tresna batzuk gordetzen zituen, eta horiek inspirazio gisa eta liburuaren argudio gisa erabili ditut", azaldu du egileak.

Zuhaizti altuak eta lerrokatutakoak inauszteko denboraldia hasi da, eta datorren apirilera arte egingo da

Udalari osoan altuerako zuhaitzak, lerrokatutakoak eta kaleetako zuhaitzia inauszteko 2025-2026 denboraldia azaroan hasi zen, eta datorren urteko apirilera arte luzatuko da, klimatologiak aurrera nola egiten duen eta loraldia goiz hasten ez den kontuan hartuta. Inausketa aurreko kanpainan atsedean begetatiboan utzi ziren zuhaitzetatik hasi da, nahiz eta aurretik ere antzeko lan batzuk egin diren Gabonetako argiak jartzea errazteko, edo zuhaitzen osasunagatik edo beste arrazoi batzuegatik, hala nola etxebizitzetan, trafikoa, mugikortasunean eta abarretan kalteak eragitea. Altuerako inausketak, aurreikusitako 648 jarduketara, Getxon bizi diren hainbat ale-motatan egiten dira: platanondoak, lizarrak, zedroak, ezkiak, akaziak, makalak eta palmondoak, besteak beste. Aurreikusten da eskaileraz lerrokatutako 1.325 ale inausiko direla, eta plataformaz 2.637 ale.

Guztira, 4.600 ale baino gehiago inaustea aurreikusten da, atsed-



naldiak txandakaturik joan den ekitaldian inausketa egin zen eremuetan. Urteko inausketak saihestu nahi dira, behar ez duten espezieetan, haien egiturazko egoera hobetzen saiatzeko, ahal den guztietan.

Jarduera honen helburua da oreka ezartzea udalerriko zuhaitzen funtzionaltasunaren eta Getxoko hiri-paisaia dauden 15.000 ale baino gehiagok hartzen duten espazio mugatuaren artean.

“Udala, beste urte batez, udal zuhaitz-ondarea kontserbatzen saiatzen ari da, horretarako behar diren lanak eginez, herritarrek gozatu ahal izan dezaten hiri-ingurunean ematen diguten guztiaz: zuhaitzek klima-aldaketari aurre egiten diote; karbono-hustubideak dira; udan eguzkitik babesten dute auzoetako tenperatura jaitsiz... Horregatik, garrantzitsua da bateragarri egitea haien hazkunde askea eta kontrolatua hirietako kokalekuekin”, adierazi du Iñigo Urkitza Ingurumen Zerbitzuko zine-

gotziak, eta gaineratu duenez, “Getxoko ondare berdea zaintzen jarraitu nahi dugu, guztiok goza dezagun hirian dituen onurez. Zuhaitzek ingurunea edertzeaz gain, klima-aldaketa geldiarazten ere laguntzen dute, karbonoa xurgatzen dute eta udan itzala ematen digute, gure auzoak freskatuz. Horregatik, funtsezkoa da oreka aurkitzea modu naturalean hazten uztearen eta hiri-espazioetara egokitzearen artean”.

Inauszteko irizpideak

Inausketa-lanak egiteko ezarritako lehenetsua zuhaitzaren egoera begetatibo, estruktural eta sanitarioak kontuan hartzea da. Batzuetan erabaki hori zaila izaten da, duten balio apaingarriagatik, aleen egoera naturalaren “askatasunean hazten” uzteko printzipioen aurka baitoa. Babes klimatikoko hiri-espazioen sarea osatzen duten eremuen aldeko apustua egiten jarraituko da, hiri-eremuak leuntzen baitituzte eta bateragarriak baitira itzalpeko soropila ereitearekin.

Hurrengo lehenetsun-arrazoa espazioa da. Zuhaitzek kalteak eragiten dituzte espazioen inbasioagatik, eta horrek honako hauei eragiten die: espaloiak, kaleen argitasuna, espaloietan hostoak pilatzea, eraikinetako eta fatxadetako teilatu-hegalak ukitzea, galtzadak inbaditzea... Zaila da izaki bizidun bat mugatutako eremu batean mantentzea, haren hazkundera kontrolatzea edo zuzentzea ez baita beti espazioan mugatzen.

Inausketa egiteko garairik egokiena negua da, zuhaitzak atsedean begetatiboan daudenean. Hala ere, kanpainak gero eta laburragoak dira, udazkeneko tenperaturak nabarmen igo direlako eta udaberriak gero eta goizago heltzen direlako, klima-aldaketaren eraginez. Gero eta eragin handiagoa eta zorrotzagoa du horrek, eta, ondorioz, neguak gero eta laburragoak dira, erretze berria aurreratu egiten da eta denboran gero eta goiztiarragoa da.

Garbigertuak eta Bolumen Handiko Hondakin Berrerabilgarriak Biltzeko Zerbitzua sustatzeko kanpaina

Udalak Garbigertu hurbileko puntu garbi finkoen eta Bolumen Handiko Hondakin Berrerabilgarriak (altzariak, gehienbat) Biltzeko Zerbitzua sustatzeko beste kanpaina bat jarri du abian. Horrela, Legealdi Planeko ekonomia zirkularrekin bat datorren konpromisoan aurrera egiten jarraitzen du Udalak, lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboaren gizarteratzea bultzatzeaz gain. Kanpainak, flyer batzuen bidez, gogoratzen du Garbigertuak egunero erabil daitekeela, 24 orduz, eta, bestalde, Biltzeko Zerbitzura dei daitekeela, 94 4660181 zenbakira.

Punta Begoña, sari ospetsu bateko finalista

Punta Begoña Galeriak Ondarearen Iberiar Sarietako hiru finalisten artean daude, Ondarearen Iberiar Biurteko nazioarteko topaketaren barruan (AR&PA Nazioarteko Azoka), sektore horretako Espainiako eta Portugalgo fororik garrantzitsuenetakoa, Sintran ospatuko dena eta hainbat herrialdeetako adituak, profesionalak eta kulturazaleak biltzen dituena.

Kategorien arabera finalista bakoitzak bere hautagaitza defendatuko du nazioarteko epaimahaiaren aurrean. Komunikazio Proiektu Onenaren kategorian, Punta Begoña Fundazioak aurkeztuko du *Punta Begoñako Zaharberritze Irekia*. Gizartea lotzen duen ondarea, Sesimbrako Itsas Museoarekin eta Oportoko Tribunal Da Relaçaoarekin lehian.

Nagusiki komunikazioa, parte-hartzea eta multime-

dia-tresnak batzen dituzten hurrengo bi ekimenak azalduko dituzte:

- 1) Punta Begoña Zuzenean. Irrati eta Ondarearen Europako Jardunaldiak Punta Begoñatik. 2024. eta 2025. urteak.
- 2) Punta Begoñak denbora-makina konektatzen du. Historia zabaltzeko ikus-entzunezko proiektu birtuala.



Punta Galea Surfeko Challengea

Red Eléctrica Punta Galea Big Wave Challenge olatu handiko surf txapelketak alerta horia aktibatuko du astebururako itsaski gogor eta sendoa iragartzen duten eguraldi-parteen aurrean. Bada, baliteke txapelketa larunbatean, hilak 6, jokatzeko, 6 metrorainoko olatuekin.